

“Don Giovanni”, W. A. Mozart

Kursaal Auditorioa

Abuztua 13 Agosto



Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

Egitarauari buruzko oharak / Notas al programa: *Rafael Banús Iruña*

Honako galdera hau egiten zuen Don Giovanniren interprete onenetako batek elkarrizketa batean: “Pertsonaia poliedriko baten gisara ikusten dut, eta garai bakoitzak bere modura landu du: Tirsok, Pushkinek, Byronek... Mozarten musika bikainak tankeratu zuen operen opera den hau (Pragan estreinatu zen 1787an, eta Vienan hurrengo urtean, aldaketa garrantzitsuekin). Da Ponte libretista handia zen, eta aurreko tradizio osoaren laburpena da haren pertsonaia. Zein da egiaz? Libertinoa, urratzailea, hedonista, eguneroko bizimodutik ihes egiten duen norbait, gizarte atzerakoi batean besterentzat ispilua den pertsonaia...”, halaxe zioen.

Ez dugu ahaztu behar “Don Giovanni” *dramma giocoso* bat dela, eta ez opera bufoa, horrek berekin dakarrenarekin. Etengabe aldatzen den giro bat erakusten du obrak. Intriga-komedia baten moduan hasten da, baina gero eta pisu dramatiko handiagoa hartzen du, bukaerara heldu arte, zeina tragedia greko baten edo Shakespeareren drama baten mailakoa baita (apur bat bigundua, zalantzarik gabe, azken ‘irakaspen’ horrekin; Mahlerrek ezabatu egiten zuen, irakaspen hau, Vienako Operan zuzentzen zuenean). Modu finean dago hemen berregina *Commedia dell’Arte* deritzana, baina badira Frantziako Iraultza iragartzen duten elementuak ere. Hala, esate baterako, Molière eta haren klase-borroratik oso gertu dago egileek Leporello morroiari ematen dioten tratamendua.

Don Juan mito unibertsala da, eta istorioa Sevillan kokatua dagoelarik (dirudienez, Miguel de Mañararengan inspiratua, gaztetako bekatuak garbitu nahi izan baitzuten hark Karitatearen Ospitalearen Fundazioarekin), egiazko kultura-bidegurutze batekin jokatzeko aukera ematen du.

Uno de los mejores intérpretes de Don Giovanni se preguntaba en una entrevista: “Lo veo como un personaje poliédrico, y cada época lo ha tratado de una manera diferente: Tirso, Pushkin, Byron... Está determinado por la magistral música de Mozart en esta ópera de óperas (estrenada en Praga en 1787 y al año siguiente en Viena, con importantes alteraciones). Da Ponte era un gran libretista, y su personaje es un resumen de toda la tradición anterior. ¿Quién es, en realidad? Un libertino, un transgresor, un hedonista, alguien que huye de lo cotidiano, un personaje que sirve de espejo de los demás en una sociedad regresiva...”, comentaba.

No debemos olvidar que “Don Giovanni” es un *dramma giocoso*, y no una ópera bufa, con lo que esto conlleva. La obra presenta una atmósfera en permanente cambio. Empieza como una comedia de enredo para ir adquiriendo cada vez mayor carga dramática, hasta llegar al desenlace final, digno de una tragedia griega o shakesperiana (algo amortiguado, sin duda, por la ‘moraleja’ final, que Mahler suprimía cuando la dirigía en la Ópera de Viena). Hay una reelaboración muy sutil de la *Commedia dell’Arte*, pero con elementos que anuncian ya la Revolución Francesa. Por ejemplo, el tratamiento que los autores dan al criado Leporello está muy cerca de Molière y su lucha de clases.

Don Juan es un mito universal, y el hecho de que la historia esté ubicada en Sevilla (al parecer, inspirada en Miguel de Mañara, que quiso limpiar sus culpas de juventud con la Fundación del Hospital de la Caridad) permite jugar con una auténtica encrucijada de culturas.

“Don Giovanni”

Música de Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791)

Dramma giocoso en dos actos KV 527, con libreto de Lorenzo da Ponte.

Estrenada el 29 de octubre de 1787 en el Teatro Nacional de Praga.

Manuel Hernández Silva, musika zuzendaria

Salva Bolta, osagai dramatikoa

Abeslarien zerrenda / Reparto:

Don Giovanni: **Christopher Maltman**

Leporello: **José Fardilha**

Il Commendatore: **Daniel Giulianini**

Donna Anna: **Irina Lungu**

Don Ottavio: **Toby Spence**

Donna Elvira: **Nicole Cabell**

Masetto: **José Manuel Díaz**

Zerlina: **Miren Urbietta-Vega**

Orquesta Sinfónica de Euskadi

Easo Abesbatza

(Xalba Rallo, abesbatza zuzendaria)

Teresa Martín Ezama, bideo-sorkuntza

Javier Ulla, argiztapena

Daniel Oyarzabal, maisu errepikatzailea
eta klabezina

Acto I (80')

Pausa

Acto II (80')

Gutxi gorabeherako iraupena / Duración aproximada: 180'

LEHEN EKITALDIA

Leporellok –Don Giovanniren morroi zintzoak– eskandalu handi bat ikusiko du, gauez, Komendadorearen etxean. Donna Annak, laguntza eske, familia osoa esnatuko du, eta aldi berean gizon arrotz bat geldiarazten saiatuko da, inork ikusi gabe etxetik alde egin nahian dabilena. Gizon arrotz hori Don Giovanni da. Komendadoreak zarata aditzen du, eta alaba babestera joango da. Don Giovannik erronkari erantzungo dio, eta, borrokan hasita, Komendadorea hilko du. Donna Annak eta haren senargai Don Ottaviok hiltzaile ezezagunaz mendekatu nahi dute, baina Don Giovannik ihes egitea lortuko du.

Donna Elvira, Don Giovannik abandonatutako emakumea, mendekatzeko irrikan dago, baina haren oinazeak axolagabekeria baizik ez dio sortzen Don Giovanniri. Azken honek ihes egitea lortuko du, eta Leporellok erantzun beharko du nagusiaren orde.

Zerlina Masettoekin ezkonduko da, eta festa bat antolatzen dute ospatzeko, baina Don Giovanni Zerlina seduzitzen saiatuko da. Une horretan, Donna Elvira sartuko da, eta Zerlinari jakinaraziko dio ez duela Don Giovannirekin fidatu behar. Donna Annak eta Don Ottaviok Don Giovannirekin topo egingo dute; haren laguntza espero dute bizi dituzten une zailetan. Baina Donna Elvirak jakinaraziko dio, Donna Annari, ez duela Don Giovannirengan sinetsi behar. Donna Annak, Don Ottaviorekin bakarka geratzen denean, honi aitortuko dio nola jokatu zuen krimenaren gauean, eta esango dio Don Giovanni bera dela bere aitaren hiltzailea.

Zerlina eta Masetto Don Giovannik antolatutako festa batera doaz. Donna Anna, Don Ottavio eta Donna Elvira haiekin elkartuko dira, Komendadorearen hiltzailea Don Giovanni dela salatzeke. Don Giovannik, une batez, gauzak hankazgoratzea lortuko du. Alabaina, amaieran, guztiak 'jolasetik' irtingo dira eta Don Giovanniren aurka egitea erabakiko dute.

BIGARREN EKITALDIA

Leporellok ez du jarraitu nahi Don Giovanniren bizitzako erokerietan eta arriskueta sartuta, baina hark bere plan berrien konplize egingo du. Donna Elvira, abandonaturik eta triste, Leporelloren besoetan eroriko da, Don Giovannirekin nahastu baitu. Masettok Don Giovannirekin elkartu nahi du berriz ere, eta harengana jende gehiagorekin joatea erabaki du. Baina Don Giovannik denak engainatzea lortuko du, Leporello dela uste baitute guztiek, eta Masettok ikasbide ederra hartuko du.

Donna Elvirak -okerrean oraindik ere, Leporello Don Giovanni dela sinetsita-, Donna Anna eta Don Ottavio topatuko ditu, ustekabean. Zerlinak eta Masettok haiekin bat egingo dute. Leporello Don Giovanni delakoan, berehala fusilatua nahiko dute denek. Leporellok ihes egitea lortuko du, orde.

Don Giovannik Komendadorea zenaren ahotsa aditzen du, bekatu ikaragarriak leporatzen dizkiola. Don Giovannik probokazio batekin erantzungo dio Komendadoreari, eta afaltzera gonbidatuko du, ausardiaz.

Don Ottaviok zera esaten dio Donna Annari: laster aurkituko duela gaizkilea zigortzeko modua, eta eskatzen dio, lehenbailehen, berarekin ezkontzeko.

Don Giovannik festa handi bat antolatu du, eta guztiak daude gonbidatuak, baita Komendadorea ere. Parranda bete-betean dago, eta non ikusten duen Don Giovannik Komendadorea heltzen. Komendadoreak damutzeko eskatuko dio gaizkileari. Don Giovannik ez du bere errua onartzen eta erronka egiten die denei, baina, azkenean, garaitu egingo dute. Arrakasta mendekatzaileena da...

Sinopsis

PRIMER ACTO

Leporello –fiel criado de Don Giovanni– es testigo de un escándalo nocturno en la casa del Comendador. Donna Anna alerta a toda la familia y trata de detener a un intruso que pretende salir de la casa sin ser visto. Este intruso es Don Giovanni. El Comendador oye el estruendo y llega para proteger a su hija. Don Giovanni asume el reto, a consecuencia del cual el Comendador es asesinado. Donna Anna y su novio, Don Ottavio, quieren vengarse del desconocido asesino, pero Don Giovanni logra huir.

Donna Elvira, que fue abandonada por Don Giovanni, arde en deseos de venganza, pero el dolor de Donna Elvira sólo despierta indiferencia en Don Giovanni. Él se las arregla para escapar, y es Leporello quien contesta en su lugar.

Zerlina celebra su compromiso con Masetto, mientras que Don Giovanni intenta seducir a Zerlina. Entra Donna Elvira y le advierte a Zerlina de que no debe confiar en Don Giovanni. Donna Anna y Don Ottavio se encuentran con Don Giovanni y esperan su apoyo en los momentos difíciles que están viviendo. Pero Donna Elvira convence a Donna Anna de que no debe creer en Don Giovanni. Cuando Donna Anna se queda a solas con Don Ottavio, le confiesa cómo actuó la noche del crimen, y le revela que el asesino de su padre es el mismo Don Giovanni.

Zerlina y Masetto acuden a una fiesta organizada por Don Giovanni. Donna Anna, Don Ottavio y Donna Elvira se reúnen con ellos para delatar a Don Giovanni como el asesino del Comendador. Pero Don Giovanni logra cambiar la situación, llevándolos a todos a su terreno. Sin embargo, al final, todos salen del ‘juego’, acusando a Don Giovanni.

SEGUNDO ACTO

Leporello no quiere seguir compartiendo las locuras y los peligros de la vida de Don Giovanni, pero éste le hace cómplice de sus nuevos planes. Donna Elvira, abandonada y triste, cae en los brazos de Leporello, a quien confunde con Don Giovanni. Masetto quiere volver a encontrarse con Don Giovanni, y decide ir acompañado de más gente. Pero Don Giovanni, a quien todos confunden con Leporello, consigue engañarlos, y Masetto recibe una buena lección.

Donna Elvira, que continúa creyendo por error que Leporello es Don Giovanni, se encuentra con Donna Anna y Don Ottavio por casualidad. Zerlina y Masetto se unen a ellos. Confundiendo a Leporello con Don Giovanni, todos quieren fusilarlo en el acto. No obstante, Leporello consigue escapar.

Don Giovanni oye la voz del difunto Comendador, acusándolo de sus horribles pecados. Don Giovanni responde al Comendador con una provocación, y se atreve a invitarlo a cenar.

Don Ottavio trata de persuadir a Donna Anna de que pronto encontrará la manera de castigar al criminal, y le pide que acepte casarse con él lo más pronto posible.

Don Giovanni organiza una bulliciosa fiesta a la que están todos invitados, incluso el difunto Comendador. La juerga está en pleno apogeo cuando Don Giovanni ve llegar al Comendador. Éste pide al villano que se arrepienta. Don Giovanni no acepta su culpa y desafía a todos, pero es, finalmente, derrotado. Los vengadores triunfan...



Manuel Hernández Silva

Vienako Kontserbatorioan graduatu zen, Ohorezko Matrikularekin, R. Schwarzen eta G. Marken Katedran. Diplomatu zen urte berean, Vienako Ganbera Orkestrak antolatutako Forum Jünger Künstler zuzendaritza lehiaketa irabazi zuen, eta talde horren zuzendari gisa jardun zuen austriar hiriburuko Konzerthaus-en. Kordobako Orkestraren zuzendari titularra izan da, eta Caracasko Simon Bolivar Orkestraren zuzendari gonbidatu nagusia. Gaur egun, Malagako Orkestra Filarmonikoaren zuzendari titular eta artistikoa da, eta baita Andaluziako Gazte Orkestraren zuzendari musikala ere. Hainbat orkestra gidatu ditu zuzendari gonbidatu gisa: Vienako Sinfonikoa, Israelgo Sinfonikoa, Seulgo Filarmonikoa, Pragako Irratiko Sinfonikoa, Rheinische Philharmonie, Nord Tschechische Philharmonie, Mexikoko Nazionala, Puerto Ricoko Sinfonikoa, Mulhouseko Sinfonikoa, Wuppertaleko Sinfonikoa, Bogotako Filarmonikoa... Horiez gainera, Espainiako orkestra gehienetan aritu da zuzendari gonbidatu gisa.

Se graduó en el Conservatorio de Viena, con Matrícula de Honor, en la Cátedra de R. Schwarz y G. Mark. En el año de su diplomatura ganó el concurso de dirección Forum Jünger Künstler convocado por la Orquesta de Cámara de Viena, dirigiendo a esta formación en la Konzerthaus de la capital austríaca. Ha sido director titular de la Orquesta de Córdoba, y director principal invitado de la Orquesta Simón Bolívar de Caracas. Actualmente es director titular y artístico de la Orquesta Filarmonica de Málaga, y director musical de la Orquesta Joven de Andalucía. Como director invitado, ha dirigido a la Sinfónica de Viena, la Sinfónica de Israel, la Filarmónica de Seúl, la Sinfónica de la Radio de Praga, la Rheinische Philharmonie, la Nord Tschechische Philharmonie, la Nacional de México, la Sinfónica de Puerto Rico, la Sinfónica de Mulhouse, la Sinfónica de Wuppertal, la Filarmónica de Bogotá... ejerciendo, también, como director invitado, en la mayoría de las orquestas españolas.



Salva Bolta

1982an Valentziako ESADen lizentziatua, antzezle gisa lan egin zuen 1992ra arte. Orduz geroztik, antzerki-lanak, arte plastikoekin eta museologiarekin uztartzen ditu. Laguntzaile artistiko gisa, antzerkian lan egin du M. Barroso, R. Wilson, G. Vera eta B. Lunarekin, besteak beste, eta Paco Azorinekin “Tosca” eta “María Moliner” operetan. Eszena-zuzendari gisa, aipagarriak dira, bere ibilbidean, Ionescoren “Delirio a dúo” muntaia, Valle-Inclanen “Avaricia, lujuria y muerte”, T. Stopparden “Piezas radiofónicas”, L. Vilanovaren “Münchhausen” eta J. R. Moralesen “Oficio de tinieblas”, Zentro Dramatiko Nazionalearentzat, eta S. Becketten “Los días felices” eta A. Conejoren “Rinconete y Cortadillo” Teatros del Canal-entzat. 2006 eta 2012 bitartean, Zentro Dramatiko Nazionaleko zuzendaritza artistikoaren koordinatzailea izan zen. Horrez gain, Madrilgo Escena Contemporánea Jaialdiko zuzendari artistikoa ere izan zen, eta, gaur egun, Valentziako Tercera Setmana Jaialdia zuzentzen du.

Licenciado en 1982 por la ESAD de Valencia, trabajó como actor hasta 1992. Desde entonces, alterna la actividad teatral con las artes plásticas y la museología. Como asistente artístico, ha trabajado en teatro con M. Barroso, R. Wilson, G. Vera y B. Luna, entre otros, y con Paco Azorín en las óperas “Tosca” y “María Moliner”. Como director de escena, destacan sus montajes “Delirio a dúo” de Ionesco, “Avaricia, lujuria y muerte” de Valle-Inclán, “Piezas radiofónicas” de T. Stoppard, “Münchhausen” de L. Vilanova y “Oficio de tinieblas” de J. R. Morales, todos ellos para el Centro Dramático Nacional, así como “Los días felices” de S. Beckett y “Rinconete y Cortadillo” de A. Conejero para los Teatros del Canal. Entre 2006 y 2012, fue coordinador de dirección artística del Centro Dramático Nacional. También fue director artístico del Festival Escena Contemporánea de Madrid y, actualmente, dirige el Festival Tercera Setmana de Valencia.



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa / Orquesta Sinfónica de Euskadi

34 urteko ibilbidearekin, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak musika sinfonikoa zabaltzeko eta euskal musikari arreta berezia eskaintzeko zereginarekin jarraitzen du. Jarduera finkoa du eta, horren ondorioz, 4 kontzertu ziklotan parte hartzen du, ganbera-musikako 2 ziklo antolatzen ditu familiei zuzenduak, eta politika diskografiko bizia darama, euskal musikagileen inguruan bereziki. Jarduera hori osatzeko, talde gonbidatua da jaialdi, opera eta kontzertu berezietan, euskal geografiako bazter guztietara musika eramanez eta gizarte-lan gero eta handiagoa eginez -tailerren eta kontzertuen bitartez- ezintasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko helburuarekin. 1982an -Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatuta- sortu zenetik, 14 bira egin ditu nazioartean.

Con 34 años de trayectoria, la Orquesta Sinfónica de Euskadi sigue desarrollando su vocación de divulgar la música sinfónica y de atender con especial énfasis la música vasca. Una asentada actividad le lleva a actuar en 4 ciclos de conciertos, a celebrar otros 2 ciclos dedicados a la música de cámara y al público familiar, así como a desarrollar una intensa política discográfica centrada fundamentalmente en compositores vascos. Completa su actividad actuando como formación invitada en festivales, óperas y conciertos extraordinarios, llevando la música a todos los rincones de la geografía vasca, y desarrollando -a través de talleres y conciertos- una creciente labor social para la integración de las personas con discapacidad. Destaca la realización de 14 giras internacionales. La OSE fue creada en 1982, promovida por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.



Easo Abesbatza Mistoa / Coro Mixto Easo

2006. urtean sortua, Araoz Abesbatzako emakumezkoen zenbait ahotsez eta Easo Abesbatzako ahots baxuez osatuta dago. Bi talde horiek ibilbide sendoa egin dute eta Easo Abesbatza Mistoa uztartzen dira, talde mistoentzat bereziki pentsatutako errepertorioa lantzeko. Easo Abesbatza Mistoa opera eta zarzuela ugaritan parte hartu du ("Bahiketa burdelean", "Iolanta", "Eugene Onegin", "Txirula magikoa", "Portuko tabernaria"...), Donostiako Kursaal Auditorioan eta Victoria Eugenia Antzokian, Bilboko Euskaldunan, Toulouseko aux Grains Halle-n eta Parisko Salle Pleyel-en, besteak beste. Hainbat orkestrarekin jardun du, esaterako, Euskadiko Sinfonikoa, Balearretako Orkestra, Toulouseko Kapitolioko Orkestra Nazionala, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, etab., honako maisu hauekin: Leopold Hager, Ramon Torrelledo, Tugan Sokhiev, Günter Neuhold, Jaime Martín edota Pietro Rizzorekin.

Creado en 2006, está formado por una selección de voces de mujeres del Coro Araoz y de voces graves del Coro Easo, formaciones con una contrastada trayectoria que se unen en el Coro Mixto Easo para trabajar repertorios específicamente pensados para formaciones mixtas. El Coro Mixto Easo ha participado en numerosas óperas y zarzuelas ("El rapto en el serrallo", "Iolanta", "Eugene Onegin", "La flauta mágica", "La tabernera del puerto"...), actuando en el Auditorio Kursaal y en el Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián, Euskalduna de Bilbao, La Halle aux Grains de Toulouse y en la Salle Pleyel de París, entre otros. Ha colaborado con orquestas como la Sinfónica de Euskadi, Orquesta de Baleares, Orquesta Nacional del Capitolio de Toulouse, Orquesta Sinfónica de Bilbao, etc., así como con los maestros Leopold Hager, Ramón Torrelledó, Tugan Sokhiev, Günter Neuhold, Jaime Martín y Pietro Rizzo, entre otros.



Christopher Maltman



Nicole Cabell

Christopher Maltman

Cardiff Singer of the World lehiaketa irabazi zuen 1997an, eta Londresko Royal Academy of Music-en egin zituen ikasketak. Don Giovanniren interpretazioengatik izan da batez ere txalotua. Rol horrekin jardun du, besteak beste, Salzburgoko Jaialdian, Berlinen, Kolonian edo Londresko Royal Opera House-n; azken horretan beste paper batzuk ere abestu ditu, hala nola, Papageno, Guglielmo, Lescaut, Forester, Marcello eta Ramiro. Gero eta gehiago eskatzen dizkiote Verdiren rolak; hala, interpretatu ditu Simon Boccanegra Frankfurten, Posako Markesa ("Don Carlo") Amsterdamen eta Frankfurten, edo Conte di Luna ("Il Trovatore") Covent Garden-en. Oso aktiboa da kontzertuen eremuan, eta, besteak beste, orkestra hauekin jardun du: London Symphony Orchestra, Dresdengo Staatskapelle, Rotterdameko Filarmonikoa, Milango La Scala-ko Filarmonikoa, Los Angelesko Filarmonikoa, etab. Maisu handiek zuzendu dute, nola diren C. Davis, S. Rattle, V. Gergiev edo R. Ticciati. Errezitalak eskaini ohi ditu Londresko Wigmore Hall-en eta Aldeburgh, Edinburgo, Salzburgo edo Schwetzingeneko jaialdietan.

Nicole Cabell

BBCren Nazioarteko Kantu Lehiaketaren irabazlea eta Decca diskoetxearen artista eskusiboa, nazioarteko soprano aipagarrienetako bat da Nicole Cabell. "Soprano" bere lehenengo diskoak *Gramophone* aldizkariaren 'Editor's Choice' saria jaso zuen, eta baita kritika positibo ugari ere. Beste hainbat sari ere eskuratu ditu, hala nola, Echo Klassik Award saria eta Frantziako Diskoaren Akademiako Georg Solti Orphée d'Or saria. Eskaini dituen azken emanaldiak dagokienez, aipatzekoa da "Alcina" operako paper nagusian egindako debuta, Genevako

Ganador del concurso Cardiff Singer of the World en 1997, Maltman se formó en la Royal Academy of Music de Londres. Es especialmente aclamado por sus interpretaciones de Don Giovanni, rol al que ha dado vida en el Festival de Salzburgo, Berlín, Colonia o en la Royal Opera House de Londres, donde ha cantado también los papeles de Papageno, Guglielmo, Lescaut, Forester, Marcello y Ramiro. Es cada vez más demandado para roles verdianos, interpretando a Simón Boccanegra en Frankfurt, al Marqués de Posa ("Don Carlo") en Ámsterdam y Frankfurt, o al Conte di Luna ("Il Trovatore") en el Covent Garden. Activo en el campo del concierto, ha actuado con la London Symphony Orchestra, Staatskapelle de Dresde, Filarmónica de Róterdam, Filarmónica de La Scala de Milán, Filarmónica de Los Ángeles, etc., con maestros como C. Davis, S. Rattle, V. Gergiev o R. Ticciati. Ofrece recitales regularmente en el Wigmore Hall de Londres o en los festivales de Aldeburgh, Edimburgo, Salzburgo o Schwetzingen.

Ganadora del Concurso Internacional de Canto de la BBC y artista exclusiva de Decca, es una de las sopranos más destacadas del panorama internacional. Su álbum de debut "Soprano" recibió el galardón 'Editor's Choice' de *Gramophone*, además de cosechar numerosas críticas positivas y obtener premios como el Echo Klassik Award y el Georg Solti Orphée d'Or de la Academia del Disco de Francia. De sus recientes actuaciones, cabe destacar su debut en el rol principal de "Alcina" en el Gran Teatro de Ginebra, su interpretación de Violetta de



Irina Lungu

Antzoki Nagusian; Violetaren papera “La Traviata” operan, Londresko Royal Opera House-n; Hanna Glawari, “La viuda alegre” lanean, Chicagoko Opera Lirikoan; eta Rosalinderen papera Straussen “Saguzarra” lanean, Cincinnatiko Operan. Hurrengo emanaldien artean, honakoak ditu hitzartuta: “La Traviata” operako Violetaren papera eta “Capuletoak eta Montescoak” operako Giuliettarena, San Franciscoko Operan; eta “La Bohème” operako Mimiren rola -lehen aldiz interpretatuko duena-, Parisko Opera Nazionalean.

Irina Lungu

Voronezhko Estatu-Kontserbatorioan ikasi zuen, M. Podkopaev baritonoarekin. Nazioarteko hainbat lehiaketatan sariak irabazi ondoren, eta, artean Milango La Scala-ko Akademiako ikasle zela, R. Mutik Rossiniren “Moises eta Faraioa” laneako Anairen papera kantatzeko hautatu zuen 2003/2004 denboraldian. Orduz geroztik, paper ugari abestu ditu, garrantzizko operetan: Adina (“L’Elisir d’amore”), Marguerite (“Fausto”), Nannetta (“Falstaff”), Violetta (“La Traviata”) eta beste hainbat. Antzoki handietan jardun du, hala nola, Madrilgo Errege Antzokian, Zuricheko Operako Antzokian, Berlingo Deutsche Oper-en, Londresko Royal Opera House-n, Parisko Operan edo Moskuko Bolshoi Antzokian. Laster, Donna Annari (“Don Giovanni”) emango dio bizia Wiener Staatsoper-en, eta baita beste hauei ere: Elvira (“I Puritani”), Piacenzako Antzokian; Anna Bolena, Avignonko Operan; Micaela (“Carmen”), Arena di Verona-n; eta Mimi (“La Bohème”), Turingo Regio Antzokian. Irina Lungu maisu handien zuzendaritzapean abestu du, besteak beste, Maazel, Gatti, Plasson, Dudamel edo Hardingen zuzendaritzapean.

“La Traviata” en la Royal Opera House de Londres, el papel de Hanna Glawari de “La viuda alegre” en la Ópera Lírica de Chicago, y el de Rosalinde de “El murciélago” de Strauss en la Ópera de Cincinnati. Sus próximos compromisos incluyen los papeles de Violetta de “La Traviata” y Giulietta de “Capuletos y Montescos” en la Ópera de San Francisco, así como su debut en el rol de Mimí de “La Bohème” en la Ópera Nacional de París.

Se formó en el Conservatorio Estatal de Vorónezh con el barítono M. Podkopaev. Después de ser premiada en varios concursos internacionales, y siendo aún estudiante en la Academia de La Scala de Milán, fue elegida por R. Muti -en la temporada 2003/2004- para el rol de Aná de “Moisés y el Faraón” de Rossini. Desde entonces, ha encarnado numerosos papeles como Adina de “L’Elisir d’amore”, Marguerite de “Fausto”, Nannetta de “Falstaff”, Violetta de “La Traviata” y un largo etcétera, en teatros como el Teatro Real de Madrid, el Teatro de la Ópera de Zúrich, la Deutsche Oper de Berlín, la Royal Opera House de Londres, la Ópera de París o el Bolshói de Moscú. Próximamente, dará vida a Donna Anna (“Don Giovanni”) en la Wiener Staatsoper, así como a Elvira (“I Puritani”) en el Teatro de Piacenza, a Anna Bolena en la Ópera de Avignon, a Micaela (“Carmen”) en la Arena di Verona, y a Mimi (“La Bohème”) en el Teatro Regio de Turín. Irina Lungu ha cantado bajo la batuta de directores como Maazel, Gatti, Plasson, Dudamel o Harding.



Daniel Giulianini



José Fardilha

Daniel Giulianini

1987an jaioa, Cesenako Kontserbatorioan ikasi zuen, eta, ondoren, Bolognako Comunale Antzokiko Opera Eskolan, Carlo Meliciani eta Franco Fussirekin. Etta Limiti Saria irabazi zuen 2012an, eta ikusleen saria As.Li.Co lehiaketan, 2015ean. Giulianinik 2009/2010 denboraldian egin zuen debuta, "Carmen" operako Moralesen paperean eta "Italiarra Aljerren" laneko Halyren paperarekin Piacenza Antzokian. Ondoren, "La Traviata" operan kantatu zuen, eta errezitalak eskaini zituen Abu Dhabin. Horrez gain, "Rigoletto" operako Monteroneren papera interpretatu du Ravennako Jaialdian, Dubain eta Bahreinen. Dulcamara gisa debutatu zuen "L'Elisir d'amore" lanean -Leo Nucciren ekoizpen batean- Piacenzan eta Ravennan, eta "La Bohème" operako Schaunardi eman zion bizia Ravennan, Vilniusen eta Novaran. Duela gutxi, Bancoren paperean jardun du "Macbeth" lanean, Ravennan, eta Figaroren paperean "Figaroren ezteiak" operan, Spoletoko Festival dei Due Mondi jaialdian, James Conlon eta Giorgio Ferrararen zuzendaritzapean.

José Fardilha

Portugalen jaioa, Lisboako San Carlos Antzoki Nazionalarekin jarduten du erregulariki; han abestu ditu, esaterako, "Carmen", "Gianni Schicchi", "Lucia di Lammermoor", "La fille du régiment", "Manon Lescaut" eta "Candide". Era berean, gonbidatu gisa jardun du Parisko Operan, Toulouseko Kapitolioko Antzokian, Milango La Scala Antzokian, Erromako Operako Antzokian, Sevillako Maestranza-n, Berlingo Staatsoper Unter den Linden-en, Txileko Santiagoko Udal Antzokian, Genevako Antzoki Nagusian, Maggio Musicale Fiorentino opera jaialdian -Zubin Mehtarekin-, etab. Birak egin ditu Txinan "Turandot" lanarekin, eta Japonian barrena ibili da "La Traviata" eta "Turandot" operekin. Eredu sinfoniko-

Nacido en 1987, estudió en el Conservatorio de Cesena y posteriormente en la Escuela de Ópera del Teatro Comunale de Bologna con Carlo Meliciani y Franco Fussi. Ganó el Premio Etta Limiti en 2012, y el premio del público del concurso As.Li.Co en 2015. Giulianini debutó en la temporada 2009/2010 como Morales de "Carmen" y como Haly de "La italiana en Argel" en el Teatro de Piacenza. Seguidamente cantó en "La Traviata" y ofreció varios recitales en Abu Dhabi, interpretando, asimismo, el rol de Monterone de "Rigoletto" en el Festival de Ravenna, en Dubái y en Bahrein. Debutó como Dulcamara de "L'Elisir d'amore" en una producción de Leo Nucci en Piacenza y Ravenna, e interpretó el papel de Schaunard de "La Bohème" en Ravenna, Vilnius y Novara. Más recientemente ha debutado en el papel de Banco de "Macbeth" en Ravenna, y como Figaro de "Las bodas de Figaro" en el Festival dei Due Mondi de Spoleto, bajo la dirección de James Conlon y Giorgio Ferrara.

Nacido en Portugal, colabora regularmente con el Teatro Nacional San Carlos de Lisboa, donde ha cantado en "Carmen", "Gianni Schicchi", "Lucia di Lammermoor", "La fille du régiment", "Manon Lescaut" y "Candide". Asimismo, ha sido invitado a la Ópera de París, el Teatro del Capitolio de Toulouse, el Teatro de La Scala de Milán, el Teatro de la Ópera de Roma, la Maestranza de Sevilla, la Staatsoper Unter den Linden de Berlín, el Teatro Municipal de Santiago de Chile, el Gran Teatro de Ginebra, el festival de ópera Maggio Musicale Fiorentino con Zubin Mehta... Ha realizado giras por China con "Turandot", y ha recorrido Japón con "La Traviata" y "Turandot". En el campo sinfónico-



MITCH JENKINS

Toby Spence



AINHOA IRURETA

Miren Urbieta-Vega

koralean, ohiko gonbidatua da lan hauetan parte hartzeko: Rossiniaren “Petite Messe Solennelle”, Beethovenen “Bederatzigarren Sinfonia”, Stravinskiren “Ezteiak”, Pucciniaren “Messa di Gloria”, Orffren “Carmina Burana” eta Haendelen “Mesias”. Laster, Toulouse bisitatu du “Tosca” lanarekin, eta New Yorken eta Las Palmasen izango da “Don Giovanni” lanarekin.

Toby Spence

Kalifikazio bikainekin graduatu zen Oxfordeko New College eskolan, eta, ondoren, Londresko Guildhall School of Music-en. 2011n, Royal Philharmonic Society-k ‘Urteko abeslaririk onena’ saria eman zion. Kontzertuko solista aipagarria, Spencek orkestra eta maisu handiekin jardun du: Clevelandeko Orkestra Oliver von Dohnányirekin, Berlin eta Vienako filarmonikoak Simon Rattlerekin, San Franciscoko Sinfonikoa Tilson Thomasekin, Santa Cecilia Akademia Nazionala Antonio Pappanorekin, Rotterdameko Filarmonikoa Valery Gergievekin... Oso aktiboa da operaren alorrean, eta antzoki nahiz jaialdi handietan jardun du, hala nola, Royal Opera House-n, English National Operan, Parisko Operan, New Yorkeko Metropolitan-en edo Glyndebourneko Jaialdian, Wagner, Mozart eta Offenbachen hainbat operatako rol aipagarriak interpretatuz. Grabazio ugari ditu Deutsche Grammophon, Decca, BMG, Philips, Collins, Linn Records, Hyperion eta EMI diskoetxeekin.

Miren Urbieta-Vega

2015eko Campoamor Antzokiko Sari Lirikoetan ‘Abeslari berrien’ kategorian irabazi zuen, “Turandot” operako Liuren paperean OLBEEn egindako debutagatik. Beste sari batzuko ere eskuratu ditu: bigarren saria Bilboko Nazioarteko Kantu Lehiaketan, 2012an; ‘Espainiako kantaririk

coral, es invitado regularmente a cantar “La Pequeña Misa Solemne” de Rossini, la “Novena Sinfonía” de Beethoven, “Las Bodas” de Stravinsky, la “Messa di Gloria” de Puccini, el “Carmina Burana” de Orff y “El Mesías” de Haendel. Próximamente visitará Toulouse con “Tosca”, y Nueva York y Las Palmas con “Don Giovanni”.

Se graduó con las máximas calificaciones en el New College de Oxford y, posteriormente, en el Guildhall School of Music de Londres. En 2011, la Royal Philharmonic Society le otorgó el premio de ‘Mejor cantante del año’. Destacado solista de concierto, Spence ha colaborado con grandes orquestas y maestros: Orquesta de Cleveland con Oliver von Dohnányi, filarmónicas de Berlín y Viena con Simon Rattle, Sinfónica de San Francisco con Tilson Thomas, Academia Nacional de Santa Cecilia con Antonio Pappano, Filarmonica de Róterdam con Valery Gergiev... Muy activo en el campo de la ópera, ha cantado en importantes teatros y festivales como la Royal Opera House, la English National Opera, la Ópera de París, el Metropolitan de Nueva York o el Festival de Glyndebourne, interpretando destacados roles de óperas de Wagner, Mozart y Offenbach. Tiene en su haber numerosas grabaciones para Deutsche Grammophon, Decca, BMG, Philips, Collins, Linn Records, Hyperion y EMI.

‘Cantante revelación’ en los Premios Líricos Teatro Campoamor 2015 por su debut como Liù de “Turandot” en la ABAO, tiene en su haber otros galardones: segundo premio en el Concurso Internacional de Canto de Bilbao 2012; ‘Mejor cantante española’ en



José Manuel Díaz

onena' 2014ko Francesc Viñas Lehiaketan; hirugarren saria Bordeaux Médoc Lehiaketan, 2016an, etab. Armindaren papera abestu du Mozarten "La Finta Giardiniera" operan, eta, horrez gainera, "El Caserío", "Katiuska", "Luisa Fernanda" edota "Los Gavilanes" zarzueletan parte hartu du. Bestalde, hainbat estreinalditan esku hartu du, hala nola, Sorozabalen "Juan José", Usandizagaren "La llama" eta Valtinoniren "Pinocchio" lanetan. Datorren urrian, "Faust" operako Margueriteren paperean egingo du debuta, Oviedoko Operan. *Lieda* eta oratorioa lantzen ditu, Brahms, Vivaldi, Bach, Mozart edo Faureren lanekin. Hainbat orkestrarekin batera kantatu du, hala nola: Bilboko Sinfonikoarekin, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Nafarroako Sinfonikoarekin, Valentziako Komunitateko Orkestrarekin, Madrilgo Orkestra Akademikoarekin, Madrilgo Filarmoniarekin, etab.

José Manuel Díaz

Jose Manuel Díaz bilbotar baritonoak jaioterriko kontserbatorioan egin zituen ikasketak, eta goren mailako kalifikazioak lortu zituen. Nazioarteko hainbat lehiaketatako finalista eta irabazle izan da. Gaur egun, ahots-teknikan eta erreperitorioan trebatzen ari da, Italian.

1997an Bilbon debuta egin zuenetik "La Traviata" operan, ekoizpen ugarritan parte hartu du, garrantzizko antzokietan: Errege Antzokia, Sevillako Maestranza, Euskalduna Jauregia, Villamarta Antzokia, Campoamor Antzokia, Gayarre, Alfredo Kraus Auditorioa, Baluarte... eta baita A Coruña, Tenerife, Valladolid eta Malagako antzokietan ere. Horrekin batera, kontzertu eta oratorioko interprete gisa jarduten du, eta baita musika garaikideko eta zarzuelako interprete gisa ere.

Oratorioaren eremuan, debuta egin zuen Brahmsen "Requiem Alemaniarra" lanarekin Bilbon -Juanjo Menaren zuzendaritzapean-, eta bere erreperitorioaren barruan, Mozart, Faure, Bach, Rossini, Puccini edo Orffen lanak interpretatu ohi ditu.

el Concurso Francesc Viñas 2014; tercer premio en el Concurso Bordeaux Médoc 2016, etc. Ha representado el rol de Arminda de "La Finta Giardiniera" de Mozart, actuando, asimismo, en zarzuelas como "El Caserío", "Katiuska", "Luisa Fernanda" o "Los Gavilanes". También ha participado en los estrenos de "Juan José" de Sorozabal, "La llama" de Usandizaga y "Pinocchio" de Valtinoni. En octubre de este año debutará en el papel de Marguerite de "Faust" en la Ópera de Oviedo. Cultiva el *lied* y el oratorio, con obras de Brahms, Vivaldi, Bach, Mozart o Fauré. Ha cantado junto a orquestas como la Sinfónica de Bilbao, la OSE, la Sinfónica de Navarra, la Orquesta de la Comunitat Valenciana, la Orquesta Académica de Madrid, la Filarmonía de Madrid, etc.

El barítono bilbaíno José Manuel Díaz estudió en el conservatorio de dicha ciudad, obteniendo las máximas calificaciones. Ha sido finalista y premiado en varios concursos internacionales. En la actualidad, perfecciona técnica vocal y repertorio en Italia.

Desde su debut operístico en 1997 en Bilbao con "La Traviata", ha intervenido en numerosas producciones de ópera en teatros como el Teatro Real, la Maestranza de Sevilla, el Palacio Euskalduna, el Teatro Villamarta, el Teatro Campoamor, el Gayarre, el Auditorio Alfredo Kraus, el Baluarte, teatros de A Coruña, Tenerife, Valladolid, Málaga, etc. Compagina esta actividad con la de intérprete de concierto y oratorio, aunque también dedica parte de su tiempo a la música contemporánea, así como a las representaciones de zarzuela.

En el campo del oratorio, debutó con "Un Réquiem Alemán" de Brahms en Bilbao -dirigido por Juanjo Mena-, y dentro de su repertorio, interpreta habitualmente obras de Mozart, Fauré, Bach, Rossini, Puccini u Orff.

ÓPERA ACTUAL

LÍDER MUNDIAL EN ÓPERA EN ESPAÑOL

ÓPERA ACTUAL *digital*
en *KIOSKO Y MÁS*



Kiosko y más está disponible para iPad, iPhone, Android y en PC y MC en tu navegador

Lee tu revista en casa o en cualquier ciudad del mundo desde tu ordenador, *tablet* o *smartphone*.
Descargable desde App Store, Play Store o Windows Phone

WWW.OPERAACtual.COM

Descubre los contenidos *online* de nuestra página web



info@operaactual.com · tel.: (+34) 93 319 13 00 · Fax: (+34) 93 310 73 38.

· www.operaactual.com ·



Joyería

González Larrauri

Urbietta, 2 (Esq. Avda. de la Libertad) · Donostia · Tel.: 943 42 71 21

www.gonzalezlarrauri.net

